

'Publikoari gorroto'

Lipusen Huts Teatroak giza harremani buruzko obra bat estreinatuko du Luhuson **32**



Eusko Jaurlaritzak uste du 2013. urtean beste 15.000 enplegu galduko direla

Ogasun Sailak kaleratutako txosten baten arabera, ekonomiak behera egiten segituko du eta aurten galdutako 23.000 lanpostuei beste 15.000 gehituko zaizkie 2013an

Jaurlaritzak iritzi dio lan merkatuan eragin ezkorra izango dutela barne kontsumoa gutxitzeak, inbertsioek beheraka segitzeak eta Europak atzeraldian segitzeak **16**



Euskarabideko zuzendariak dio euskal eremuan «presiopean» direla erdaldunak

Itunpeko euskaltegiatan matrikulazioak %10-12 jaitsi dira. Uste baino hobeki joan arren, hizkuntz politika aldatzeko eskatu dute **2-3**



Txomin Ziluaga. J. HERNAEZ / ARP

Txomin Ziluaga hil da, ezker abertzaleko «iraultzaile nekazina»

Herri Batasunaren sortzaile eta Mahai Zazionaleko kide izan zen. Militante sutsua, politikari ez-profesionala izana azpimarratu dute **9**

Bihar
BERRIekin

herrialdeko hitza info

MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS



Laura Mintegi

EH Bilduko
lehendakari gaia

«Alderdi guztiak bat gatoz itunak ezinbestekoak direla; hala bada, erdia egin dugu»

Elkarriketa **6-7**

Nola panpina bilakatzen den



Ander Lipus, Iñaki Ziarrusta eta Miren Tirapu antzerkilariak Luhusoko errepikan; Lapurdiko herrian ari dira errepikatzen azken aste hauetan. GAIZKA IROZ

Xabier Mendiguren Elizegiren 'Publikoari gorroto' estreinatuko du Ander Lipusen Huts Teatroak azaroaren 1ean, Luhuson

Manex Fuchsek zuzendu du 1986an argitaratutako testuaren taularatzea

Nora Arbelbide Baiona

1986an argitaratu zuen *Publikoari gorroto* (Euskaltzaindia) antzerki lana Xabier Mendiguren Elizegik (Beasain, 1964), baina antzerkia bera nehoiz ez da taularatu izan. Lehen aldiz estreinatuko du Huts Teatroak heldu den azaroaren 1ean, Luhusoko Harri Xuri gelan. Hortik landa, 24 emanaldi finkatuak dituzte Euskal Herrian gairak.

Muntatzeko ideia Ander Lipusi bururatu zitzaion, duela lau zepabost urte testua irakurri zuenean: «Nahikoa inpaktatu ninduen. Eta, egia esateko, gutxitan izaten da testu bat irakurri eta halako zirrarra bat jasotzea, eta kasu honetan, izan nuen. Bazuen zerbaitekuak». Oso gogorra zelako: «Ño! Hau nondik aterata da?», bururatu zitzaion orduan Lipusi.

Baina gauza bat da papereko antzerkia, eta beste bat hori ohol-tzara igaita. Horretan dauka desafioetako bat Huts Teatrotik. Jendeak antzerkia irakurria zuela

bai, baina ez zuela ikusia nabarmendu du Lipusek: «Bada, orduan, nik eginen dut jendeak ikusi ahal dezan». Horrekin abiatu zen ideia, baina gero, nola egin... Garai hartan, Antzerkiola Imaginarioarekin zebilen Lipus. Orain, ordea, bide berri bat eraikia du, Huts Teatroa. Eta antzerki hori du abiapuntu.

Behin testua hautatuta, taldea muntatzen hasi zen. Orduan deitu zuen Manex Fuchs, zuzendaritza bat zor ziolako, Lipusek dioenez, irriz; Fuchsen *Aulki hutsa* Lipusek zuzendu baitzuen. Taula gainerako behar zituen beste bi aktore lanei Iñaki Ziarrusta eta Miren Tirapu lotu zitzaizkien; espazio eszenikoan, Dejabu; musikan, Asier Ituarte. Orotara 20 bat dira hurbiletik edo urrundik obra hau zutik jartzen lagundu dutenak.

Bakoitzaren arduraz

Teatroaren inguruko gogoeta bat proposatzen du antzerkiak. Antonin Artauden *Le theatre et son*

double antzerkia erreferentzia zuzena du, eta dela Mendiguren-entzat, dela Lipusentzat, dela Fuchsentzat, Artaud funtsezko erreferentzia da. Lipusen kasuan: «Haren bitartez jakin ahal izan dut beste teatro bat ere existitzen dela, eta ez bakarrik beti ikusten dugun teatro psikologiko hori; baizik eta badagoela beste bortizkeria bat, gauzak beste era batera, krudeltasun batekin adierazteko».

Publikoari gorroto-k berak antzerkiari buruzko funtsezko galdera batzuk pausatzen dituela deritzo Fuchsek: «Adibidez, publikoaren lekua zein den». Eta bide batez, antzerkiaren jostailu guztiaren aritzeko parada ere ematen

du: «Maska jokoa, kantua, trabes-titzea, oihal baten gibelean gorde eta pertsonaiaz aldatzearena, zikintzearena... Antzerkia ganer bat balitz, ganer horretan diren puska guztiarekin jostatzeko aukera ematen du», Fuchsek esplikaturik. Ander Lipus berak ezagunak zaizkion pertsonaia batzuk ekartzen ditu taula gainera. Dela Juan Junda, dela Manex Domintxine.

Baina metateatroa baino haratago, norberaren ardurak ere baditu jomugan obrak: «Antzerkia kolektiboki partekatzen den zerbaite den heinean, kolektiboki partekatzen ditugun bizitzako beste hainbat arlotan galdera berdina pausa litezke. Politikan, lagunen

Euskal antzerkia egitea xede duen Huts Teatroaren estreinako antzerki lana

➔ Artedramaren magalean sortu du Huts Teatroa Ander Lipusek. Antzerkiola Imaginarioaren etapa bururatu dela dio, eta orain etapa berria hasiko duela: «Oraingoaren imaginario hori geografikoa da. Euskal Herrian egin nahi dut antzerkia eta euskaraz. Eta posible bada, zergatik ez Madrilan edo Buenos Airesen, baina euskaraz». Hori da oraingoan berezitasun markatuena: «Agiain beste batzuk izango ditut. Horien aurkitzen joango naiz bidean, baina argi daukat berezitasun horien artean apustua dela euskal antzerkia egitea, euskara hutsean eta euskaraz bakarrik. Hori ez dugu espainolez edo erdaraz egingo». Horiek erranik, zerbaitekin hasi behar eta, horri guztiari abiapuntu bat emateko, pentsatu zuen euskal idazle batekin hastea ideia polita zela: «Halako testu hain potente batekin, talde berri bat sortuz».

arte, familian... Denek dugu arduratu bat. Nola eramaten dugu hori?».

Eta Xabier Mendiguren Elizegik zehazturik: «Egiten dituen gogoetak giza harremanetan egoten diren botere erlazioei buruzkoak



Giza harremanetan egoten diren botere erlazioei buruzkoak dira gogoetak»

XABIER MENDIGUREN
Antzerkia lanaren idazlea

«Antzerkia ganer bat balitz, ganer horretan diren puska guztiarekin jostatzeko aukera ematen du»

MANEX FUCHS
Antzerki lanaren zuzendaria

«Ankerkeria batean sinesten dugu, baina gure aldetik uste dut behar duela poetikotasun bat»

ANDER LIPUS
Antzerkilaria

dira. Norgehiagokak, nork agindu, nor menpeko. Ez da horretaz mintzatzen, baina ikusten duzunak pentsarazten dizu gauza horiei buruz».

Beste gisa batez erranik: «Metafora gisa izango litzateke: bortizkeria baten aurrean nola panpina bilakatu ahal garen. Zerbaite bortitza jartzen digutelarik aurrean, erreakzionatzeko ez dugula baliabiderik, nola bat-batean eskatzen digutena egitera goazen, nola robot gisako bihurtzen garen».

Alde horretatik, nahiz eta testua 1985ean idatzia izan, 2012an baduela zer erran argi dute antzerki horrekin zerkusia dutenek. Hori bai, garai hartan 21 urte zituen Mendigurenek. Ikaslea zen, eta karririk punk mugimenduan murgilduak zeuden: «Beste ni bat zen hura». Punka baretu da geroztik, eta idazlea, zein antzerkilariak, zein zuzendaria, guztiak dira zahartu. Garaian oiher bat zen haren ordez, orain, Mendiguren Elizegik dienez, «irria» dago.

Eta antzerkian hori agertzen da. Bereziki, bukaeran. Idatzian goiti botaka bururatu zuten pertsonaiek. Orain, berriz, dantzatan: «Guk ankerkeria batean sinesten dugu, baina gure aldetik uste dut behar duela poetikotasun bat. Ez emateko bakarrik alde itsusia», Lipusen hitzetan. Beti idazlearen iniritziarekin; muntatze proiektuan parte hartu baitu Mendigurenek. Esaldien mozteko baliatu dute aukera. Baina funtsa bera gelditu da.